

MATERIALISMO HISTERIKOA

Egia



UXUE APAOLAZA LARREA

Batzuei berehala sinesten diet, zerbait kontatzen didate, eta ez zait susmorik pizten. Haserretu naiteke, baina sinesten diet. Sinesteak edo ez sinesteak ez du, askotan, egiarekin zerikusirik, egiantzekotasunarekin baizik. Ipuingile ona izan behar da gezurrak egiaren itxura handiagoa izan dezan egiak berak baino. Eta fikzioan desiragarria dena, errealitatean ez da hala izaten. Ez dugu jendeak gezurrak ondo kontatzen diezazkigun nahi, nahiago baitugu gezurra antzeman. Hauteskundeak datozkigu, eta politikak errealitateaz hitz egin behar liguke, egiantzaz, eta egiaz; baina zalantza daukat, ipuinetan bezala, zenbait diskurtsok, berez, bi istorio ez ote dizkigun kontatzen. Esaten digutena, eta ezkututzen dutena.

Nik Aitor Estebani sinesten diot sexu askatasunaren legea nahasgarria dela dioenean, puntu batzuk argitzea behar duela. Ez nago ados, baina sinesten dut, ez berak agian, baina ordezkatzeko duen jendarteak ez duela ulertzen. Esaten ari zenak egia asko zuen. Eta, aldiz, ez diot sinesten etxebizitza legerari ezetz esan diotenik eskumenak inbaditzen dituelako. Eta azken hori izan da kanpainan gehien esplotatzen ari direna, sinesgaitzena izan arren. Baina norbaiti ipuin ona iruditu zaio, eta hala izango da, jasotzen duten boto kopurua ikusita.

Hauteskundeak datoz, eta egiaz mozorrotutako erdi-egia eta gezurrak botako dizkigute, eta politika ez da fikziorako eremua; egia bat ondo kontatzea garrantzitsua den arren, eta horretarako batzuetan ez diren istorioak erabili behar badira ere. Baina ipuingileak istorio bat kontatzen digun bitartean, egia bat ikusarazi nahi digu, kontatzen ez duen hori. Politikari batek istorio bat kontatzen digunean, ez du beti azpiko egia hori hobeto ulertarazi nahi, ezkutatu egin nahi du. Ezkutatu egin nahi du, ez duzula uste duzuna bozkatuko. Adi politikariek kontatzen ez dituzten kontakizunei. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

HERRI KIRATS



Seaska

Ekarpen ekonomikoa eskatu dute Ipar Euskal Herriko Ikastolek: "Ekaitz erauntsiak Herri Urratsen 40. urteurrena ospatzeko geneukan ametsa zapuztu du. Besta bere handitasun osoan ezin ospatze horrek milaka euroko galera ekonomikoa ekarri dio Seaskari".

Independentzia

Usansolo herri izateko legedia aldatzea eskatu dute EAJK, EH Bilduk eta Ahal Duguk Espainiako Kongresuan. Usansolotarrek 30 urte daramatzate herri izateko lanean, eta azken txanpan daude, baina oztopoak izan ditzakete Espainiako Legedian.

Elikagaiak

Elikagaiak alferrik galtzea prebenitzeko legea eztabaidatu dute Espainiako Diputatuen Kongresuan. Besteak beste, jatetxeak behartuta egongo dira bezeroei ematera jaten ez dituzten elikagaiak, eta elikagaien banaketa-enpresek ere ezingo dute jakirik bota.